

**VITORIA
GASTEIZ** !

EMAKUMEEN
BERDINTASUNERAKO
ETA JABEKUNTZARAKO
JARDUERAK

2012KO
IRAILA-ABENDUA

BERDIN TASUNA ETA JABE KUNTZA

ANTOLATZAILEA: BERDINTASUNERAKO ZERBITZUA
LAGUNTZAILEA: MONTEHERMOSO KULTURUNEA



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

HITZALDIAK

ORDUTEGIA:

19:00etatik 21:00etara

TOKIA:

Ortuño aretoa -
Montehermoso Kulturunea

SARRERA LIBREA

izango da toki guztiak
bete arte

URRIAREN 10EAN

"ETXEKO LANGILEEN GIZARTE ETA LAN EGOERA" MAHAI-INGURUA (*)

HIZLARIAK:

Isabel Quintana Cantero, Bizkaiko Etxeko Langileen
Elkarteko lege-aholkularia
Norma Vázquez García, emakumeen aurkako
indarkerian eta emakumeen jabekuntzak aditua.

(*) Mintzaldi hau "Elkarrekiko mendetasunak. Etxeko langileak
eta zaintzen krisia" izeneko programaren barruan dago.
Norabide Atzerriko Pertsonen Arreta osorako Zentroak antolatu
du programa hori eta Montehermoso Kulturunean irailaren 27tik
urriaren 28ra bitartean burutuko da.

URRIAREN 31N

"GARAPENA ERATZEN" BIDEO-FORUMA

La Joyako (Bolivia) jatorri indigena duten emakume
batzuek sustatutako garapen ekonomikoko proiektuari
buruzkoa

HIZLARIAK:

Katia Gato Rimbau
Enrique Torrejón Vilches
AMARU Kultur Elkarteko kideak

AZAROAREN 7AN

"FEMINISMO BERRIAK" HITZALDIA (**)

HIZLARIA:

Silvia López Gil
Aktibista eta ikerlaria feminismoaren eta filosofiaren
inguruan

(**) Laguntzailea: Arabako Emakumeen Asanblada.

AZAROAREN 28AN

"MAITASUNA, ERROMANTIZISMOA ETA DESBERDINTASUNA" HITZALDIA

HIZLARIA:

Mari Luz Esteban Galarza
UPV/EHuko Gizarte Antropologiako irakasle titularra

LANTEGIA

EMAKUMEENTZAKO AUTODEFENTSA FEMINISTA

Tailer honek ondoko helburua du: pentsamendu feministako giltzarriak, trebetasun fisikoak eta indargune psikologikoak garatzea, emakumeen aurka gerta daitezkeen indarkeriei aurrea hartzeko eta erantzuteko. Autodefentsa feminista, indarkeriaren aurka emakumeek izango duten jabeakuntzarako tresna gisa erabil dezaten nahi dugu, eta horretarako emakume bakoitza zein taldea indartzen saiatuko gara.

NORI ZUZENDUTA?

16 urtetik gorako emakumeei
Gazteleraz emango dira

INFORMAZIOA ETA IZENA EMATEA:

010
www.vitoria-gasteiz.org/berdintasuna
Gizarte etxeak

LEKU KOPURUA: 20

IZENA EMATEKO EPEA:

irailaren 10etik tailerra hasi baino
astebete lehenagora.

PREZIOA: 12,20 €

PREZIO MURRIZTUA: 6,10 €
(emakume langabeentzat)

LANTEGIA: EMAKUMEENTZAKO AUTODEFENTSA FEMINISTA

PRESTATZAILEA: Maitena Monroy Romero,
fisioterapeuta eta emakumeen aurkako indarkerian
aditua

1. TAILERRA

Egunak eta ordutegia: urriaren 19an (ostirala),
16:00etatik 20:00etara; eta urriaren 20an (larunbata),
10:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 19:30era
Tokia: Orixe aretoa – Judimendi gizarte etxea

2. TAILERRA

Egunak eta ordutegia: azaroaren 13, 15, 20 eta 22an
(astearte eta ostegunetan), 18:30etik 21:30era
Tokia: Erabilera Anitzeko aretoa – Aldabe gizarte
etxea

3. TAILERRA

Egunak eta ordutegia: azaroaren 23an (ostirala),
16:00etatik 20:00etara; eta azaroaren 24an
(larunbata), 10:00etatik 14:00etara eta 15:30etik
19:30era
Tokia: Orixe aretoa – Judimendi gizarte etxea

4. TAILERRA

Egunak eta ordutegia: abenduaren 14an (ostirala),
16:00etatik 20:00etara; eta abenduaren 15ean
(larunbata), 10:00etatik 14:00etara eta 15:30etik
19:30era
Tokia: Orixe aretoa – Judimendi gizarte etxea

LANTEGIA

EMAKUMEAK SARE SOZIALETAN

Tailer honetan, emakumeek teknologiarekin duten harremanari, generoaren zulo digitalari, jabeakuntzan teknologia berriek egiten duten ekarpenari eta emakumeen parte hartzeari buruzko zenbait eduki teoriko eskainiko ditugu, emakumeak trebatzeko eta eztabaida sortzeko. Gainera, sare sozialek feminismoan egin duten ekarpenaz hitz egingo dugu eta sare sozialak, 2.0 web guneak, blogak, etab. ezagutuko ditugu. Tailerrean, gainera, alderdi praktikoa bat landuko dugu, blog-ak, Facebook, Twitter, You Tube eta Tuenti ezagutzeko, zer ahalmen eta abantaila dituzten jakiteko, etab. Azken saioan, blog-ak sortzeko aukera izango dugu.

LANTEGIA:
EMAKUMEAK
SARE SOZIALETAN

PRESTATZAILEA:

June Fernández Casete, kazetaria, generoan aditua, blog egilea eta *Pikara Magazine* aldizkari digitaleko zuzendaria

EGUNAK: irailaren 19 eta 26an eta urriaren 3an (asteazkena)

ORDUTEGIA: 18:00etatik 20:30era

TOKIA: Ordenagailuen aretoa - Montehermoso Kulturunea

NORI ZUZENDUA: internet erabiltzen dakiten emakumeei
Gazteleraz emango da

INFORMAZIOA ETA IZENA EMATEA:

010

www.vitoria-gasteiz.org/berdintasuna
Gizarte etxeak

LEKU KOPURUA: 12

IZENA EMATEKO EPEA: Irailaren 3tik 12ra (biak barne)

PREZIOA: 4,10 €

PREZIO MURRIZTUA: 2,05 € (emakume langabeentzat)

PRESTAKUNTZA ETA HAUSNARKETA IKASTAROA

EXISTITZEN NAIZ, BAINA AGERTZEN AL NAIZ KOMUNIKABIDEETAN? INFORMAZIOA ETA PUBLIZITATEA BERDINTASUNAREN IKUSPUNTUTIK

Nola erakusten dizkigute komunikabideek emakumeak eta gizonak? Emakumeen aurkako indarkeria iraurazten laguntzen dute? Nola lantzen dute holako indarkeria? Nola erabiltzen dituzte lengoiaia eta irudia? Zer gertatzen da publizitatearekin? Nola nahi dugu gu ordezkatzea? Zer elementu ditu praktika on batek? Badago sexista ez den komunikabideren bat? Ikastaro honetan horri guztiari buruz egingo dugu hausnarketa eta emakumeen eskubideak aintzat hartuko dituen komunikazio inklusibo bat posible egiteko tresnak eskuratuko ditugu, eskubide horiek ezinbestekoak baitira gizarte bidezko eta berdinzale batean. Komunikazio inklusibo horrek lagunduko digu emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren helburuan aurrera egiten.

PRESTAKUNTZA ETA HAUSNARKETA
IKASTAROA: **EXISTITZEN
NAIZ, BAINA AGERTZEN AL
NAIZ KOMUNIKABIDEETAN?
INFORMAZIOA ETA PUBLIZITATEA
BERDINTASUNAREN IKUSPUNTUTIK**

PRESTATZAILEA:

Itziar Abad Ramírez, genero eta garapenerako lankidetzan trebatutako kazetaria eta berdintasunerako eragilea

EGUNAK: irailaren 20an, urriaren 18an, azaroaren 15ean eta abenduaren 13an (osteguna)

ORDUTEGIA: 18:30etik 20:30era

TOKIA: Salcedo aretoa - Montehermoso Kulturunea

NORI ZUZENDUA: Emakumeei
Gazteleraz emango da

INFORMAZIOA ETA IZENA EMATEA:

010

www.vitoria-gasteiz.org/berdintasuna
Gizarte etxeak

LEKU KOPURUA: 20

IZENA EMATEKO EPEA: Irailaren 3tik 13ra (biak barne)

PREZIOA: 4,10 €

PREZIO MURRIZTUA: 2,05 € (emakume langabeentzat)

LANTEGIA

JENDAURREAN HITZ EGITEKO TEKNIKAK

Idea bat komunikatzen jakitea, ideia bera bezain garrantzitsua da. Horixe izango da ikastaro honen premisa, komunikazioan parte hartzen dituzten elementuak eta jendaurrean hitz egiteko ditugun zailtasunak identifikatuko ditugu. Horrela bada, komunikazio eraginkorrago burutzeko zenbait teknika ikasiko ditugu. Lengoiaren erabilera ez sexista egiteko dauden proposamenak aztertuko ditugu eta gure arteko komunikazioak generoan duen eraginaren inguruan egingo dugu hausnarketa. Amaitzeko, entzule eta egoeraren arabera egokia eta koherentea izango den mintzaldia egingo dugu, hitzeko zein hitzezkoa ez den komunikazioaren inguruan trebatuz.

LANTEGIA JENDAURREAN HITZ EGITEKO TEKNIKAK

PRESTATZAILEA:

Miriam Ocio Saenz de Buruaga, psikologoa eta komunikazioan eta generoan aditua

EGUNAK: urriaren 2tik azaroaren 13ra (asteartea)

ORDUTEGIA: 18:00etatik 21:00etara

TOKIA: 2. Hezkuntza tailerra - Montehermoso Kulturunea

NORI ZUZENDUA: Emakumeei
Gaztekeraz emango da

INFORMAZIOA ETA IZENA EMATEA:

010

www.vitoria-gasteiz.org/berdintasuna
Gizarte etxeak

LEKU KOPURUA: 20

IZENA EMATEKO EPEA: Irailaren 3tik 25era (biak barne)

PREZIOA: 20,40 €

PREZIO MURRIZTUA: 10,20 € (emakume langabeentzat)

PRESTAKUNTZA ETA HAUSNARKETA IKASTAROA

FEMINISMOA, POLITIKA PUBLIKOAK ETA EMAKUMEEN PARTE-HARTZEA GIZARTE ETA POLITIKAREN ARLOETAN

Berdintasunaren irudikeria, itxuraz berdintasunezkoa den gizartea erakusten saiatzen da, baina berdintasuna ez da lortu eta gizartea eta politika publikoak ez dira neutralak berdintasunari dagokionez. Hori dela-eta, ikastaro honen bitartez, emakumeek politika publikoetan eta eremu soziopolitikoan duten parte-hartzea eta eragina sustatu nahi dugu, emakumeen hiritartasun eskubidea delako eta berdintasunera aurrera egiten lagunduko digulako. Ikastaro honetan Mugimendu Feministatik eta Berdintasun Politiketatik inplementatu diren estrategiak eta jarduerak ezagutu eta horien gainean hausnartuko dugu; estrategia eta jarduera horiek, emakumei erabakiak hartzeko eremuan parte hartzen eta eremu horietan sartzen laguntzea dute helburu. Gainera, gure proposamenak egingo ditugu eta ezagutuko dugu hirian eta Udalean parte-hartzerako zein eremu eta baliabide ditugun.

PRESTAKUNTZA ETA HAUSNARKETA IKASTAROA: FEMINISMOA, POLITIKA PUBLIKOAK ETA EMAKUMEEN PARTE-HARTZEA GIZARTE ETA POLITIKAREN ARLOETAN

PRESTATZAILEA:

Elo Mayo Cabero, genero berdintasunean aditua eta Vitoria-Gasteizko Gizarte Kontseiluko lehendakariordea

EGUNAK: urriaren 5, 6, 19 eta 20an (ostirala eta larunbata)

ORDUTEGIA: ostiraletan, 17:00etatik 20:00etara; larunbatetan, 11:00etatik 14:00etara

TOKIA: Salcedo aretoa - Montehermoso Kulturunea

NORI ZUZENDUA: Emakumei
Gazteleraz emango da

INFORMAZIOA ETA IZENA EMATEA:

010

www.vitoria-gasteiz.org/berdintasuna
Gizarte etxeak

LEKU KOPURUA: 20

IZENA EMATEKO EPEA: Irailaren 3tik 28ra (biak barne)

PREZIOA: 12,20 €

PREZIO MURRIZTUA: 6,10 € (emakume langabeentzat)

PRESTAKUNTZA ETA HAUSNARKETA IKASTAROA

ADINEKO EMAKUMEAK, JABETZEKO DENBORA

50 urte edo gehiago ditugu. Gure hurbileko familia-eremua beste bat da, eta agian hori ez da aldatu den eremu bakarra. Aldi berean, gure gorputza, barrutik zein kanpotik aldatu da. Aldaketa asko! Horregatik agian pixka bat pentsatzeko unea dugu. Nola atera probetxua ikasitakoari eta metatutako esperientzia guztiari? Eta hemendik aurrera zer? Nola gustatuko litzaiguke zahartzea? Galdera anitz ditugu. Ikastaro honetan aztertuko ditugu gure gorputzean gertatzen diren aldaketa fisikoak eta zenbait osasun jarraibide, baita etapa honek harremanetan, hurbileko eremuan eta gizartean dituen alderdi nagusiak ere; gainera, gure esperientziari esker gure harremanetarako, gizarte sareetarako eta gizartearen esku hartze aktiborako ditugun baliabide baliotsuak identifikatuko ditugu.

PRESTAKUNTZA ETA HAUSNARKETA
IKASTAROA: **ADINEKO EMAKUMEAK,
JABETZEKO DENBORA**

PRESTATZAILEA:

Mercè Fuentes Pujol, medikua eta CAPSeko (Osasun Analisien eta Programen Zentroa) kidea

EGUNAK: azaroaren 16 eta 17an (ostirala eta larunbata)

ORDUTEGIA: ostiralean, 16:30etik 20:30era;
larunbatean, 10:15etik 14:15era

TOKIA: Betolaza aretoa - Montehermoso Kulturunea

NORI ZUZENDUA: Emakumeei
Gazteleraz emango da

INFORMAZIOA ETA IZENA EMATEA:

010

www.vitoria-gasteiz.org/berdintasuna
Gizarte etxeak

LEKU KOPURUA: 30

IZENA EMATEKO EPEA: Irailaren 3tik azaroaren 9ra
(biak barne)

PREZIOA: 4,10 €

PREZIO MURRIZTUA: 2,05 € (emakume
langabeentzat)

PRESTAKUNTZA ETA HAUSNARKETA IKASTAROA

EMAKUME LESBIANAK, IKUSGAI EGOTEA ETA JABETZEA

Lesbianak ikusgarri egitea eta horien jabekuntza, zer esan nahi du horrek? Ikastaro honetan lesbianismoaren historia ezagutuko dugu, sekretuaren eta ikusgarritasunaren artean, eta jakingo dugu feminismoak zer harreman izan duen sexu-askatasunerako beste mugimendu batzuekin. Gainera ikusiko dugu emakume lesbianak askotarikoak direla: gazteak, adinekoak, migratzaileak, herrikoak, hirikoak... Nola imajinatzen dugu errealitate bakoitza? Aniztasun handia baina guztion erronka lortzeke dago: lesbianen jabekuntza eta ikusgarritasuna. Gaur egun diren kostuak eta onurak, gure jabekuntza sustatzen laguntzen diguten estrategiak eta familian, lagun artean, kalean, ikastetxeetan, bulegoan eta abarretan lesbianok dugun ikusgarritasuna aztertuko dugu.

PRESTAKUNTZA ETA HAUSNARKETA
IKASTAROA:
EMAKUME LESBIANAK, IKUSGAI
EGOTEA ETA JABETZEA

PRESTATZAILEA:

Inmaculada Mujika Flores, lesbiana, gay eta transexualen arretarako Aldarte zentroko zuzendaria

EGUNAK: abenduaren 14 eta 15ean (ostirala eta larunbata)

ORDUTEGIA: ostiralean, 16:30etik 20:30era;
larunbatean, 10:15etik 14:15era

TOKIA: Betolaza aretoa - Montehermoso Kulturunea

NORI ZUZENDUA: Emakumeei
Gazteleraz emango da

INFORMAZIOA ETA IZENA EMATEA:

010

www.vitoria-gasteiz.org/berdintasuna
Gizarte etxeak

LEKU KOPURUA: 30

IZENA EMATEKO EPEA: Irailaren 3tik abenduaren 7ra (biak barne)

PREZIOA: 4,10 €

PREZIO MURRIZTUA: 2,05 € (emakume langabeentzat)

